


## BEZEROEKIN ERLAZIOA

Sortu dugun web orrialdean, posta elektronikoa eta telefonoa daude, bezeroek gurekin komunikatu daitezten. Gainera, sare sozialetan sortu ditugun kontuen bitartez bezeroek erraztasun handiagoa dute guri buruz jakiteko. Web orrian zalantzen foru bat dago, enpresak edota erabiltzaileek haien artean zalantzak argitzeko. Telefonoa eta posta elektronikoa administratzaileak eramaten ditu.



Norbaitek gure produktua erosterakoan, entrega esandako egunean egitea eta horretan zailtasunik ez izatea da gure helburua. Arazoren bat baldin badago, gurekin kontaktuan jartzea erraza izan edota produktua akatsik gabe iritsi behar da. Gure web orrian nahi duten alea pertsonalizatzeko aukera izatea eta bezeroarengana iristerakoan eskatu duten bezala egotea da beste helburuetako bat. Gure web orrian balorazio foru bat utzi dugu, produktua erosiko duten pertsonak beste erabiltzaileen balorazioak ikusteko eta horrela, produktua erostea ala ez erabakitzen errazagoa izateko. Erositako azpimarragailuaren ordainketa erraza eta azkarra izan dadin web orrian paypal eta bestelako ordainketa-moduak aukeran jarri ditugu.



Gure bezeroek erabileraren argibideak jasotzea eskertuko lukete, eta horretarako, argibideen eskuliburu bat dauka gure produktuak. Akatsen edo arazoren bat baldin badago produktuarekin, ahalik eta azkarren konpontzen dugu, inor konkentangaitz ez uzteko, eta enpresa arduratsua garelako adierazteko.

